

martx ak

marz



Emakumeen Nazioarteko Eguna
Día Internacional de las Mujeres

2013

Emakumeen desberdintasunaren izaera unibertsala dela-eta, kultura guztietan, herrialde guztietan ezinbestekoa da emakumeen eskubideen alde lan egiten jarraitzea. Hori dela-eta, aurten ere, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, mundu luze-zabaleko emakumeek ahots bakarrean bat egingo dute euren eskubideak aldarrikatzeko eta berdintasunaren alde borrokatzeko.

Egun horretan, gainera, lorpenak ere ospatuko ditugu, eta lorpen horiek ezinezkoak izango lirateke mugimendu feministak eta emakumeen elkarteek egin duten funtsezko ekarpenik gabe, ezta anonimotasunetik horiek guztiak lortzeko lan egiten duten pertsona guztien konpromisorik gabe.

Beraz, aurten ere Vitoria-Gasteizen emakumeen elkarteek egindako lana onartu eta lan horri omenaldia egin nahi diogu; horretarako, egun horretan elkarrekin izango gara eta ospatu egingo dugu; era berean, emakumeen arteko topaketa eta emakumeen errealitate anitzari buruzko hausnarketa sustatuko ditugu.

Elkarte horiek programatutako jardueretan parte hartzea eta haiek egindako lana eta esperientzia ezagutaraztea gonbidatu nahi zaituztegu; berdintasuna aldarrikatzeko eta berdintasun helbururantz aurrera egiteko emakumeek eta euren elkarteek lortu duten jabekuntza pertsonalaren eta talde jabekuntzaren adierazpena da.

Parte hartzen duten elkarteak eta programatutako ekintzak

1. DJEKAFO Maliko emakume elkarte

Etorkinak gara. Ingurugiro hori abiapuntutzat hartuta, eta errutinak bere pisua duela aintzat izanik, uste dugu funtsezkoa dugula elkartzea, helburu hauen alde:

- >> Gure integrazio kulturala bideratzea.
- >> Maliko emakume etorkinen egoera ezagutaraztea.
- >> Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko asmoa duten jarduerak egitea.
- >> Lankidetzak proiektuak egitea.
- >> Gure artean konektatzea, motibatzea eta laguntzea.

Hau da, gutako bakoitzaren asmo berekoi sanotik abiatuta, geure ekimenak sustatuko ditugu, aldatzeko eta egoeratik irteteko interesak bultzatuko ditugu.

:: Kontaktua: djekafovitoria@hotmail.com

Topaketa:

“Ka fanga di musoma” / “Emakumeen boterea”

Hizkuntza: gaztelania

Herritar guztiei irekitako bilera, hainbat jarduera izango dituen. Hitzaldi bat izango da, Maliko emakumeek gaur egungo gizartean duten eraginaz; jantzi tipikoen desfilea; dantzen erakustaldia; eta Maliko jan-edarien dastatzea.



2. Arabako emakumeen asanblada

Hitzaldia

“El trabajo de los cuidados en sus diferentes dimensiones”

Hizkuntza: gaztelania

Hizlaria: M^a Jesús Izquierdo Benito



3. AMARU kultur elkarte

Boluntarioen elkarte moduan sortu ginen berdintasunetik, gure arteko aldeak ulertu, errespetatu, partekatu eta ospatetik abiatzen den berdintasunetik. Konpromisoa dugu biziki-detasun baketsu eta eraikitzailearen giza printzipioarekin.


Gure ustez gizarte eremu bat eratu behar da gabezi eta beharren aurrean egon daitezkeen erantzunak bideratzeko. Berebiziko garrantzia du horrek. Ez du zertan eremu fisikoa izan. Eraikuntza kolektiborako gune irekia izan beharko da, aurreiritzirik eta fundamentalismorik gabekoa. Herritarren arteko topaketa ahalbideratu beharko du, herritarren arteko topaketa horrek eragingo baitu gizarte aldaketa berdintasunaren alde.

:: Kontaktua: amaruintercultural@gmail.com

Elkarrizketazko erakusketa

**“El compromiso de mirar”
“Begiratzeko eginbidea”**

Hizkuntza: gaztelania



Jarduera horren bitartez, begirada feministak aztertu, eztabaidatu eta bistaratzeko gune bat sortu nahi da, bitarteko hauek erabilia:

>> Bárbaro Joel Ortiz zuzendariaren “Veinte años” animazio film laburra. Genero eta Kultura: Mirar desde la sospecha taldeak (Habana, Kuba) proposaturiko film horren bitartez, ezkonbizitzako genero harremani buruzko eztabaida eragin nahi da.

>> Elkarrizketazko erakusketa, Gladys Giraldok zuzendua (Arabako Emakumeen Asanblada): Maitasunetan erromantikoena: Indarkeria ez agerikoa...baina indarkeria.

4. Gizarterako elkarte

Gizarterako elkarte 1985. urtean sortu zen: Gasteizen emakume prostituten edota prostituituen egoera eskasa ikusita, jende talde bat bildu zen. Orduz geroztik, elkarteak etengabe lan egin du emakume prostituten edota prostituituen egoera hobetzeko, Gasteizko prostituzioaren arloko funtsezko erreferente bihurtzeraino.

Gizarterako elkarte irekia da, kalean presente dagoena, dinamikoa eta parte hartezkoa. Baliabideak eta programak eskaintzen ditu, emakume prostitutak eta prostituituak gizarteraren eta pertsonaren ikuspegitik gizarteratzeko.

:: Kontaktua: cheloordejon@yahoo.es

Hitzaldia

“Se materializa la desigualdad”

Hizkuntza: gaztelania



Ez da aurrerapenik izango emakumeen eta gizonen aukera berdintasunean, emakume bakar bat esplotatua den bitartean. Sexu salerosketan, bezeroek gero eta emakume gazteagoak eskatzen dituzte. Ondorioz, gaur egun kezka garriro handitzen ari da atzeritar emakume gazteen trafikoa.

Horretaz guztiaz hitz egiteko, Madrilgo APRAMP (Asociación para la Prevención, Reinserción y Atención a la Mujer Prostituida) elkarteko bi ordezkari «Se materializa la desigualdad» hitzaldia emango digute.

5. Jalgi-Surgir Emakume Elkarte

23 bazkidek osatzen dute Jalgi-Surgir elkarte sozial eta kulturala. Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren alde lan egitea du helburu. Horretarako, emakumeek historian, antzerkian eta literaturan izan duten ikuspuntua erabiltzen du.

1991tik, sortu zen urtetik, Jalgi-Surgir elkarteak zenbait kultura tailer burutu ditu antzerki edo literaturari buruz. 2009an eta 2011n elkarteak berdintasunari buruzko jardunaldiak antolatu zituen. Jardunaldi horietan "Palabras que forman Mujeres que forman palabras" liburua argitaratu zuen, Arabako Foru Aldundiak diruz lagunduta. Argitaratze horrez gain, genero indarkeriari buruzko poesia-errezitaldia ere egin zen Caja Vital Kutxaren Fundazio Aretoan.

Urtero, gainera, Berdintasuna Orekan Kontaketa Laburreko Literatura Lehiaketa antolatzen du, Gasteizko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuak diruz lagunduta. Halaber, Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoaren Lagunen Elkarteari laguntzen dio eta elikagaiak bidaltzen ditu.

:: Kontaktua: jalgi-surgir@hotmail.com
Teléfono: 645.968.955

**IX." Berdintasuna Orekan"
Kontakteta Laburreko Literatura
Lehiaketaren sari-banaketa**

Hizkuntza: euskara /gaztelania



Lehiaketa honen bidez, parte-hartzaileek adierazten dituzten gizon eta emakumeen arteko desberdintasunetara gerturatu gara eta ezagutu ahal izango ditugu. Gainera, erantzukidetasunaren ezak sortzen dituen ondorioak ikusi ahal izango ditugu eta baita ere lan munduan dagoen desberdintasuna. Testuen irakurmenak aberasten gaitu, geure burua balioesten laguntzen digu, estereotipoak alde batera uzten ere laguntzen digu, baita emakume guztiek etengabe jasaten duten bazterketa ikusarazten ere.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta arlo guztietan kontziliazioa sustatzen duten kontaktak izango dira sarituak.

6. María de Maeztu Foro Feminista (FFMM)

María de Maeztu Foro Feminista (FFMM) emakumeen elkarte autonomo bat da eta 1988. urtean sortu zuten. Euskal Autonomia Erkidegoa da elkartearen jarduera-esparrua, baina batez ere Gasteizen lan egiten du. Ondoko eginbidea du: euskal bizitza publikoan eragina izatea hausnarketa politikoaren, parte-hartzearen eta ekintza politikoaren bidez. Helburua, sexua dela-eta bazterketarik egiten ez duen gizarte berdintsuagoa lortzea. Ideologia-espektro zabaleko emakumek osatzen dute Foru Feminista. Gehienak independenteak dira, baina badira euskal alderdi politiko batzuetako zenbait emakume ere.

8 Gasteizen Foru Feminista hiru batzordetan antolatu dute: Feminismoaren teoria eta gizarte proiektzioa; sareetan parte-hartzea eta erakundeen jarraipena; eta Komunikazioa eta antolaketa.

Argibide gehiagorako, memoriak, urteko plan operatiboak eta ondoko web orria kontsulta dezakezue:

www.forumfeministamariademaeztu.org

Kontaktua: forumfeminista@yahoo.es

Hitzaldia

**“Feminismo frente a Neoliberalismo”
“Feminismoa Neoliberalismoaren
aurrean”**

Hizkuntza: gaztelania

Hizlariak: Amaia Pérez Orozco
eta Jaime González Soriano



Krisi sistemikoak —hala nola orain izaten ari garena— herritar, langile eta erabiltzaileentzat, doitze politikatzat gauzatzen dira: laneko doitzeak, zergetakoak, hezkuntzakoak, osasunekoak edo gizarte laguntzakoak. Azken batean, bizi baldintzen aurkako eraso da. Doitzeak ustiapenaren areagotzea eskatzen du, eta, horrenbestez, mendekotasun heteropatriarkaleko harremanak biziberritzea dakar. Halaxe berritzen dira sexuan oinarritutako hierarkizazio egiturak, maila mikrosoziologikoan nahiz makrosoziologikoan dihardutenak. Horren eraginez, borroka feministarako gure estrategiak berraztertu behar ditugu.

Nola aurre egin dema horri? Neoliberalismoa al da «etsaia», heteropatriarkatua birformulatzearen funtsezko eragiletzat, ala sistema kapitalistaren beste aurpegi bat baizik ez da? Izatez, berdintasuna lor daiteke, sistema kapitalistaren esparruan? Eta, alderantziz: zer ekarpen egiten dute feminismoek, kapitalismoa zalantzan jartzean eta «atzera martxa» egin beharrean bestelako zerbaitek erakitzearen aldeko apustuan?



Informazio gehiago
www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna

945 16 13 45

945 16 26 69